

BURUKETAK

1. Nire etxeko argiaren faktura 55'42 €-koa da bi hilero. Beti berdin kontsumitzen badugu, zenbat ordainduko dugu urtebetea?

OROITU, KOMAK BETI GOIAN JARRI

-----€ ordainduko dugu urtebetea

2. Lau moztarro egiteko erabili dugun oihalak 49'8 € balio izan du. Zenbat balioko du ikasgelako 18 haurren moztarroak egiteko oihalak?

OROITU, KOMAK BETI GOIAN JARRI

_____ € balioko dute

3. Nire familian 4 senide gara. 1320 € ordaindu ditugu eski estazio batean astebeteko egonaldiaren truke. Patxiren familia 6 senide dira. Zenbat ordaindu beharko lukete egonaldi beraren truke?

EZ JARRI PUNTUAK MILAKOAK BEREIZTEKO

_____ € ordaindu beharko lukete

4. Nire ikasgelako saskibaloia taldean 9 jokalarik daude. Guztira, ikasgelako ikasleen 3/7 dira. Zenbat ikasle gaude nire ikasgelan?

_____ ikasle gaude nire gelan.

5. Gorkak 7 lagun gonbidatu ditu bere urtebetetzea eguna ospatzeko. Bakoitzak bokata bat eta freskagarri bat hartu ditu eta Gorkak 13'65 € ordaindu ditu. Kalkulatu zenbat ordaindu beharko zuen guztira, ospakizunean izan ez diren 3 lagun joan izan balira.

OROITU, KOMAK BETI GOIAN JARRI

_____ € ordaindu beharko zuen.

6. Martaren amonak 4 lagunentzeko tarta bat egingo du honako osagaiekin. Kalkulatu osagai bakoitzetik zenbat beharko lukeen 6 lagunentzako tarta egin beharko balu.

4 lagunentzako: 200 gramo irin; 4 arrautz; 140 gramo azukre; 180 mililitro esne; 60 gramo gurin; 100 gramo kakao.

6 lagunentzat:

Irina	gramo	Esnea	mililitro	Kakaoa	gramo
Arrautzak	arrautz	Gurina	gramo	Azukrea	gramo

7. Pertsona batek, egoera lasaian, 65 arnasaldi egiten ditu 5 minututan. Zenbat arnasaldi egiten ditu ordubetea? Arnasaldi bakoitzean 0'5 litro aire sartzen badira biriketan, zenbat litro aire igaroko dira biriketan zehar egun oso batean?

_____ arnasaldi ordu batean

_____ litro aire egun batean.

8. Hegazkin batek 1106 kilometro egin ditu, hau da, bere ibilbidearen $\frac{5}{7}$. Kalkulatu zenbat kilometro falta zaizkion ibilbidea bukatzeko.

_____ kilometro falta zaizkio